

**SOCIEDAD DE HICROCARBUROS DE EUSKADI, S.A. REN**  
**KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA**

Bilbon, 2019ko otsailaren 25ean

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko otsailaren 18ko datarekin, SOCIEDAD DE HICROCARBUROS DE EUSKADI, S.A. ren (SHESA) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

**BATZORDEKIDEAK**

Luis Muñoz Jiménez jauna, SHESAko zuzendari teknikoa.  
Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.  
Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.  
Carlos Aguirre Arana jauna, EEEko G.B. eta Z.O.ko zuzendaria, Enrique Monasterio Beñaran jaunaren ordeaz, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria dena, bertaratu ezina adierazi duena.

**IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA**

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, Muñoz Jaunak Presidente gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
  - SHE/19/001. Euskal-Kantauriar arroan lerro sismiko zaharren birprozesatze kontratua
2. *Kontratu txikien esleipenen zerrenda berrikustea eta jarraipena egitea.*
3. *Beste gai batzuk.*
4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.**

Batzordekideek, kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapan Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte, honako kontratazio espediente hauei lotuta:

- SHE/19/001. Euskal-Kantauriar arroan lerro sismiko zaharren birprozesatze kontratua

Batzordekideek aipatutako memoria justifikagarriak eta hauei dagozkien agiriak, kontratazio-espedientea hasteko beharrezkoak direnak, SPKLk ezarritako baldintzen arabera egin direla egiaztatzen dute, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, eta SPKLen 117. artikulua aplikazioari jarraituz, egokitzat jotzen baldin badu, ebazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez.

**2. Kontratu txikien esleipenen zerrenda berrikustea eta jarraipena egitea.**

Batzordeko kideei SHESAK esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie; hain zuzen ere, Kontratazio Batzordeak burutu zuen azken bileratik hona.

**3. Beste gai batzuk.**

Ez da beste gairik izan.

**4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan SOCIEDAD DE HICROCARBUROS DE EUSKADI, S.A.ren Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.



\_\_\_\_\_  
Luis Muñoz Jiménez jn.  
Kontratazio Batzordeko presidentea



\_\_\_\_\_  
Iker Alaña Zorrilla jn.  
Kontratazio Batzordeko idazkaria